N. 237393

# DOCTRINA

## CRISTIANA,

*Aita Gaspar Astete, Jesuitac erderaz eguiña.*

IPIÑI ZUAN EUZQUERAZ

DON JUAN DE IRAZUZTA, Erretore Hernialdecoac, ceña dán Provincia Guipuzcoacoan Eta añaditu-cion Encarnacioco, eta Eucaristiaco Misterio-en explicacioa, bay tacere confesio on baten condicioac, eta Acto Fedeco, Esperantzaco, ta Caridadecoac.

*BEAR DAN BECELA,*
1814. Urtean.

---

*Tolosan* : Liburuguille Don Francisco de la Lama-ren Echean.

## *AVISOA PECATARI GUcienzat ona.*

UTCI ezazu becataria,
lén baño lén pecatua,
aparta zaitez ocasiotic,
ceñean zauden sartua.
Izan diteque gaurco gabean
zuen oean iltcea,
baita - ere bigar baño lén
infernuetan sartcea.
Utci ditzagun vicio aec,
ceñac gauzcaten galduric,
eta escatu barcacioa,
Jaungoycoari bertatic.
Liburu onetan esaten dana
sinistu, eta obratu,
goza dezagun beti Gloria
han gaitecen descansatu.

## *DOCTRINA CRISTIANAren sarrera.*

CRistau fiel guztiac
daude obligaturic
Gurútcea adoratcera,
eta devocio izatera:
cergatic Cristoc han
salvatu guinduzan
gure becatuetatic,
eta etsayen mendetic,

Argatic zaite jarri,
santiguatcera sarri,
bai ta ere ciñatcera,
iru gurutce eguitera,
beçoquian lénena,
aoan bigarrena,
bestea bularretan
iru lecu oetan.
Beçoquian libratcea-gatic
pensamentu gaiztoetatic,
aoan libratceagatic
itz gaiztoetatic,
bularretan libratceagatic
obra, ta deseo gaiztoetatic;
eguizu bada bereala
esaten dezula onela.
Gurutce Santuaren, señaleagatic ✠, gure etsaietatic ✠ libra gaitzazu gure Jauna, ta Jangoicoa ✠. Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren icenean ✠. Amen Jesus.

## *PATER NOSTERRA.*

AIta gurea, Ceruetan zaudena: santificatua izan bedi zure icena: betor gugana zure Reinua: eguin bedi zure vorondatea, nola Ceruan, ala

lurrean: egun iguzu gure egu-
neroco oguia; eta barca guiz-
quigutzu gure zorrac, guc gu-
re zordunai barcatcen diegun
becela: eta ez gaitzatzula utci
tentacioan erorten: baicic li-
bra gaitzatzu gaitcetic. Amen
Jesus.

*AVE MARIA.*

AVE Maria, graciaz betea, Jauna da zurequin: bedeincatua cerade zu andre guztien artean, eta bedeincatua dá zure sabeleco frutua Jesús. Santa Maria, Jaungoycoaren Ama, erregutu ezazu gu pecatariocgatic orain eta gere eriotzaco orduan. Amen Jesus.

*CREDOA.*

NIC sinisten det Jaungoico Aita guciz poderoso Ceruaren, eta lurraren Criadorea gan. Eta aren Seme bacar, Jesu Cristo gure Jaunagan. Ceña concebitu zan Espiritu Santuaren obraz, eta virtutez: Jayo zán María Vir-

gina-gandic. Padecitu zuan Poncio Pilatos en aguintearen azpian, izán dù zán crucificatua, illa, eta enterratua. Getsi zán infernuetara, pistuzán illen artetic iru garren egunean. Igozán Ceruetara, andágo eseriric Jangoico Aita guciz Poderosoaren alde escuitic. Andic etorrico dá viciac, eta illac juzgatcera. Nic sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Ama Santa Catolica, Santuen Comunioa, pecatuen barcacioa, araguiaren resurrecioa, eta vicitza seculacoa. Amen.

## *SALVEA.*

JAungoicoac salva zaitzala Erregiña misericordiarén Ama, vicitza, dulzura, eta esperanza gurea, Jaungoicoac salva zaitzala, zure deyez gaude Eva-ren ume desterratuac. Zu gana gaude suspirioz, sentimentuz, eta negarrez negarrezco lecu onetan. Ea bada gure Abogada, itzuli itzatzu

guganа zure begui misericordiosoac. Ta destierro onetatic irteten gueradenean eracutsi eguiguzu Jesus, zure sabeleco frutu bedincatua. O clementisima! O piadosa! O misericordiosa! O dulce Virgiña Maria! Erregutu ezazu gugatic, Jangoicoaren Ama Santa, mereci dezagun alcanzatcea Jesu-Cristoren promesac. Amén.

*Jangoicoaren Legueco Mandamentuac dirade amar.*

Lenengo irurac pertenecitcen zaizca Jangoicoaren honrari, eta beste zazpirac progimoaren provechuari.

Lenengoa, Jaungoicoa amatcea gauza guztien gañean.

Bigarrena, Juramentu alferric ez eguitea.

Irugarrena, Jay egunac santificatcea.

Laugarrena, Aita, eta Ama honratcea.

Bosgarrena, iñor ez illtcea.

Seigarrena, Lujuriaco pe-

caturic ez eguitea.
Zazpigarrena, ez ostutcea.
Zortcigarrena, testimonio falsoric ez jasotcea, eta guezurric ez esatea.
Bederatcigarrena, progimoaren emazteric ez deseatcea.
Amargarrena, besteren gauzaric ez deseatcea.
Amar Mandamentu oec encerratcen dira bitan, servitcean, ta amatcean Jaungoycoa gauza gucien gañean, eta progimoa gueren buruac becela.

## *ARTICULU FEDECOAC dirade amalau.*

Lénengo zazpirac pertenecitcen zaizca Divinidadeari, eta beste zazpirac gure Jaun Jesu-Cristo Jaungoico, ta Guizon eguiazcoaren Humanidade santuari.

*Divinidadeari pertenecitcen zaizcanac dirade oec.*

Lénengoa, sinistea Jaungoyco guciz poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistea Aita dana.

Irugarrena, sinistea Semea dana.

Laugarrena, sinistea Espiritu-Santua dana.

Bostgarrena, sinistea Criadorea dala.

Seigarrena, sinistea Salvadorea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorificadorea dala.

*Humanidade Santuari pertenecitcen zaizcanac didade oec.*

LEnengoa, sinistea Jesu-Cristo gure Jauna Guizona dan partetic, concebitu zala Espiritu Santuaren obraz.

Bigarrena, sinistea jayo-zala Santa Maria Virgiña gandic, Señora aù zala Virgiña Cristo jayo baño lén, jayotcean, eta jayo ezquero.

Irugarrena, sinistea recibitu cituala eriotza, eta pasioa, gu pecatarioc salvatcea-gatic.

Laugarrena, sinistea jetsi zala infernuetara, eta aren etorrera santuaren ichodeten

çeuden anima justuaec libratu cituala.

Bostgarrena, sinistea Reșucitatu zala illen artetic irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igó zala Ceruetara, eta dagoala eseriric Jaungoico Aita guciz Poderosoaren alde escuitic.

Zazpigarrena, sinistea etorrico dala viciac, eta illac juzgatcera; au dá, onai ematera Gloria, ceren aren mandamentuac gorde cituen, eta gaiztoay pena seculacoa ceren gorde ez-cituen. Amen.

*Doctrina Cristianaren declaracioa galdetcen, eta eranzuten dala.*

GAldetcen det. Cerade Cristava?

Eranzuten det. Bay jauna, Jaungoyçoaren graciaz.

G. Cristavaren icen ori norgandic izán cenduan?

E. Cristo-gure Jauna-gandic.

G. Cér esan nai dú Cristavac?

E. Cristoren Guizona.

G. Cér aditcen dezu Cristo-ren guizona-gatic?
E. Cristoren Fedea duan guizona, ceñac recibitu zuan batayatcean, ta dagoana ofrecituric aren servicio santura.
G. Cer dá cristavaren señalea?
E. Gurutce Santua.
G. Cergatic?
E. Cergatic dán Cristo crucificatuaren figura, bada gurutcean redimitu guinducen.
G. Cembat modutan eguiten dù Cristavac señale hau?
E. Bitan. G. Cein dirade?
E. Ciñatcea, eta santiguatcea.
G. Cer gauza dá ciñatcea?
E. Iru gurutce eguitea escuico escuaren aurreneco beatzarequin, lénengoa becoquian, bigarrena aoan, irugarrena bularretan, itz eguiten dala Jainco gure Jaunarequin.
G. Eguizu nola?
E. Gurutce Santuaren señaleagatic ✠, gure etsayetatic ✠ libra gaitzatzu, gure Jauna, eta Jaungoycoa ✠.
G. Cergatic ciñatcen cerade

becoquian?
E. Libratceagatic Jangoicoac pensamentu gaizto-etatic.
G. Cergatic aoan?
E. Libratcea-gatic Jangoicoac itz gaizto-etatic.
G. Cergatic bularretán?
E. Libratceagatic Jangoicoac obra, ta deseo gaiztoetatic.
G. Cer dá santiguatcea?
E. Eguitea Gurutce bat escuico escuaren beatz biaquin becoquitic bularreraño, eta sorbalda ezquerrecotic escuicoraño, deitcen zayola Trinidade Santísimoari.
G. Eguin ezazu nola?
E. Aita-rén, eta Semea-rén, eta Espiritu-Santuaren icenean ✠. Amén Jesus.
G. Noiz eguin bear dezu señale haú?
E. Obra onen bat asitcen dan guztian, edo arquitcen naicenean necesidade, tentacio edo peligroren batean, principalmente oetic jaiquitcean, echetic irtetean, Elizan sartcean, jatera-

coan, eta ló eguitecoan.
G. Cergatic orrembeste bider?
E. Cergatic tempora, eta lecu guztian gure etsayac perseguitcen gaituen.
G. Cér etsay dirade oriec?
E. Mundua, Demonioa, eta Araguia.
G. Esan eguidazu bada, Gurutceac badu virtutea etsay orien contra? E. Bay Jauna.
G. Nundic izan dú zuan Gurutceac virtute ori?
E. Vencitceagandic Christoc Gurutcean etsai oyec bere Eriotzarequin.
G. Gurutcea adoratcen dezunean, cér esaten dezu?
E. Adoratcen, ta bedincatcen zaitut Cristo, cergatic zure gurutce Santuarequin Redimitu cenduan mundua.

## *DOCTRINA CRISTIANAren particioa.*

ECusi det cristava cerana cristavaren icena-gatic, eta señalea gatic: Esan

eguidazu oraiñ : Cembat gauza jaquin bear ditu Cristauba uso razoezcora izatera elcen-danean?

E. Lau gauza. G. Ceiñ dirade?

E. Jaquitea cér sinistu bearduan, cér oracio eguin bearduan, cér obratu bearduan, eta cér recibitu bearduan.

G. Nola jaquingo dú cér sinistu bear duan?

E. Jaquiñarequin Credoa edo Articulu Fedecoac.

G. Nola jaquingo dú cér oracio eguin bear duan?

E. Jaquiñarequin Paternosterra, ta Elizaco beste oracioac.

G. Nola jaquingo dú cér obratu bear duan?

E. Jaquiñarequin Jaungoicoaren legueco Mandamentuac eta Eliza Ama Santarenac, eta Obra Misericordiazcoac.

G. Nola jaquingo dú cér recibitu bear duan?

E. Jaquiñarequin Eliza Ama Santaren Sacramentuac.

*DOCTRINA CRISTIANAren lénengo partea, ceñean declaratcen diraden Credoa, eta Articuluac.*

G. Norc esan zuan Credoa?
E. Apostoluac.
G. Certaco? E. Guri Fede Santuco gauzac eracusteco.
E. Tazuc certaco esaten dezu?
E. Christavac degun Fede aú confesatceco.
G. Cer gauza dá Fedea?
E. Ecusi ez deguna sinisturcea.
G. Ecusi cenduan zuc Christo jayotcen? E. Ez Jauna.
G. Ecusi cenduan iltcen, edo Ceruetara igotcen?
E. Ez jauna. G. Sinisten dezu?
E. Bai jauna sinisten det.
G. Cergatic sinisten dezu?
E. Cergatic Jangoicoac rebelaturic, Eliza Ama santac onela eracusten duan.
G. Cer gauza dirade Cristauac becela dituzunac, eta sinisten dituzunac?
E. Ama Eliza Sañta Erromacoac dituanac, eta sinisten dituanac.

G. Cer dá zuc, eta Erromaco Elizac dezuena, eta sinisten dezuena?

E. Articulu Fedecoac principalmente, Credoan dauden becela.

G. Cer gauza dirade Articulu Fedecoac?

E. Dirade Fedeco misterio principalenac.

G. Certaco dirade Articulu Fedecoac?

E. Emateco noticia Trinidade Santisimarena, ta gure Redentore Jesu-Cristorena.

G. Nor dá Jaungoicoa?

E. Dá gauza bat esan, eta pensatu alditequean bañoere excelenteagoa, ta admirable-agoa; Jaun bat infinitamente Poderosoa, Sabioa, Justoa, principioa, eta fiña gauza guztiena.

G. Trinidade Sãtisimoa nor dá?

E. Dá Jaungoicoa bera, Aita, ta Semea ta Espiritu Santua, iru persona diferenteac, ta Jaungoico eguiazco bat.

G. Aita Jaungoicoa dá?

E. Bay Jauna.
G. Semea Jaungoicoa dá?
E. Bay Jauna.
G. Espiritu-Santua Jaungoicoa dá? E. Bai Jauna.
G. Iru Jaungoico dira?
E. Ezta Jaungoico eguiazco bat baicic.
G. Aita Semea dá? E. Ez Jauna.
G. Espiritu Santua da Aita, edo Semea? E. Ez Jauna.
G. Cergatic?
E. Cergatic personac diraden diferenteac, Jaungoico eguiazco bat bada ere.
G. Nola dá Jaungoicoa guztiz Poderosoa?
E. Cergatic bere nay-izatearequin beste bague eguitén duan nay duan guztia.
G. Nola dá Criadorea?
E. Cergatic ecer ecetic eguin cituan gauza guciac.
G. Nola dá Salvadorea?
E. Cer-gatic ematen digun gracia, eta barcatcen dizquigun pecatuac.
G. Nola dá Jaungoicoa Glorificadorea?

E. Cergatic ematen dion Gloria aren gracian irauten duanari.

G. Jaungoicoac badu corputzaren figuraric guc becela?

E. Eztu Jaungoicoa dan partetic, cergatic dá Espiritu purua, baña badu Guizona dan partetic.

G. Iru Personetatic ceiñ eguinzan Guizon?

E. Bigarrena, ceña dan Semea.

G. Aita eguin-zán Guizon?

E. Ez jauna.

G. Espiritu Santua eguin zán Guizon? E. Ez jauna.

G. Ceiñ eguin-zán bada?

E. Semea bacarric, ceñari Guizon eguinic, deritza Jesu-Cristo.

G. Beraz orrela, nor dá Jesu-Cristo?

E. Dá Jaungoicoaren Seme vicia, Guizon eguin zana gu redimitceagatic, eta nola vici eracusteagatic.

G. Cer esan nai dú Jesusec?

E. Salvadorea, edo libratzallea.

G. Cergatic Salvatu, edo librátu guinducen?

E. Gure pecatuetatic, eta demonioaren mendetic.

G. Cer esan nai dù Cristoc?

E. Untatua.

G. Cer zaz izan zan Untatua?

E. Espiritu Santuaren graciaz, eta Doayaz.

G. Cristo gure Jauna, nola izan du zan concebitua, ta jaio zan Ama Virgiña-gandic?

E. Eguiten zuala Jaungoicoac obra milagrosoa.

G. Ta Cristoren Ama gueroz beti izan du zan Virgina?

E. Bai Jauna, beti izan du zan Virgina.

G. Cer gatic nai izan du zuan ill Gurutcean?

E. Gu pecatutic, eta eriotzatic libratcea-gatic.

G. Cer aditcen dezu Cristo ill ezquero, jetsi zan infernuetata?

E. Ezdet aditcen condenatuen lecura, baicican Limbora, justoac ceudenera.

G. Nola jetsi zán?

E. Cristoren Anima Jaungoico-tasunarequin unituric.

G. Eta Corputza nola gueldituzan?

E. Jaungoyco-tasunarequin-berarequin unituric.

G. Nola piztu zan irugarren egunean?

E. Biurtcen ciradela juntatcera aren Corputza, eta Anima Gloriosoa, ez gueyago illtceco.

G. Nola igo zán Ceruetara?

E. Bere virtute propioarequin.

G. Cer dá egotea eseriric Aita Jangoicoaren alde escuitic?

E. Izatea Aitac aimbat Gloria Jaungoicoa dan partetic, ta Guizona dan partetic beste guciac baño gueyago.

G. Noiz etorrico dá viciac, eta illac juzgatcera?

E. Munduaren azquenean, edo acaberan.

G. Eta orduan ill guztiac bear dúe piztu?

E. Bai Jauna, izandu cituzten anima, eta gorputzaquin beraquin.

G. Cer sinisten dezu, esaten dezunean: sinisten det Santuen Comunioa?

E. Cristau fielac dutela parte besteren odasun espiritualetan, corpuz baten miembroac becela, ceña dan Elieza.

G. Cer dá Eleiza?

E. Dá Cristau fielen Congregacioa, ceñaren burua dan Erromaco Aita Santua.

G. Nor dá Aita Santua?

E. Dá Cristoren Vicarioa lurrean, ceñari guztioc gauden obligatuac obedecitcera.

G. Sinisten dezu Credoa, eta Articuluaz gañera beste gauzaric?

E. Bai Jauna, Escritura Sagraduan dagoana, ta Jaungoycoac Elizari revelatudion guztia.

G. Cer gauza dirade oriec

E, Ez dizadala, ori galdetu niri bada naiz ignorantea; Baditu Eliza Ama Santac Doctoreac, jaquingo duenac eranzuten.

M. Ongui diozu, bada Doc-

toreac bear-due eman contu gure Fede Santuco gauza guztiena, eta ez zuc; Zuretzat asco dá ematea Articuluena Credoan dauden becela.

## *DOCTRINA CHRISTIANAren bigarren partea, ceñean declaratcen dan cer escatu bear-dan, eta Eliza Ama Santaren Oracioac.*

ECusi det nola daquizun cér sinistu bear dezun, ceña dan lénengo jaquin bear dan gauza; guacen bigarrenera, ceña dan cér escatu bear-dan jaquitea, esan ezazu: Norc esan zuan Aita gurea?

E. Jesu-Cristoc bere aotic.

G. Certaco?

E. Guri Oracio eguiten eracusteco.

E. Cer dá Oracio eguitea?

E. Dá jasotcea anima Jaungoicoagana, eta escatcea mesedeac.

G. Pater nosterra esaten dezunean, norequin itz egui-

ten dezu? E. Jaungoico gure Jaunarequin.

G. Non dagó Jaungoico gure Jauna?

E. Lecu guztian, especialmente Ceruan, ta Sacramentu Santisimo Aldarecoan.

G. Cein dá Oracioetan onena?

E. Pater nosterra. G. Cergati?

E. Cer-gatic Apostuluac escatu, ta esan zuan Cristoc bere aotic.

G. Cergatic gueyago?

E. Cergatic dituan zazpi peticio caridade guztian fundaturic. G. Cein dirade?

E. Lenengoa, santificatua izan bedi Zure Icena.

G. Cer escatcen dezu peticio orretan?

E. Jaungoicoaren Icena izan dedilla ezagutua, eta onratua mundu guztian.

G. Cein dá bigarrena?

E. Betor gugana zure Reinua.

G. Cer escatcen dezu peticio orretan?

E. Reina dezala Jaungoicoac gure animetan emen lur-

rean graciarequin, eta guero eman dizagula gloria.

G. Cein dá irrugarrena?

E. Eguin bedi zure vorondatea nola Ceruan, ala lurrean.

G. Cer escatcen dezu peticio orretan?

E. Eguin dezagula Jangoicoaren vorondatea, lurrean gaudenac, Bienaventuraduac Ceruan eguiten duen becela.

G. Cein dá laugarrena?

E. Egun iguzu gure eguneroco oguia.

G. Cer escatcen dezu peticio orretan?

E. Eman dizagula Jangoincoac Corputzarenzat mantenu conveni zayona, ta animarentzat graciaren mantenu espirituala ta Sacramentuac.

G. Cein dá bostgarrena?

E. Barcatu guizquigutzu guru zorrac, guc gueren zordunai barcatcen diegun becela.

G. Cer escatcen dezu peticio orretan?

E. Barcatu dizagula Jaungoicoac gure pecatuac, guc

barcatcen diegun becela agraviatu gaituenai, eta gazqui eguiñ diguenai.

G. Cein dá seigarrena?

E. Ez gaitzatzula utci tentacioan erorten.

G. Cer escatcen dezu peticio orretan?

E. Ez deguigula utci, Jaungoico gure Jaunac erorten, eta consentitcen pensamentu, eta tentacio gaiztoetan.

G. Cein dá zazpigarrena?

E. Baicican libra gaitzazu gaitcetic.

G. Cér escatcen dezu peticio orretan?

E. Libra gaitzala Jaungoico gure Jaunac animaco, ta corputceco gaitz, eta peligro guztietatic.

G. Cer-gatic esaten dezu lénengo: Aita gurea, Ceruetan zaudena?

E. Jasotceco viotza Jangoicoa-gana, ta escatceco mesedeac humildadearequin, eta confianzarequin.

G. Cér esan nai du itz Amen, azquenean añaditcen dezun arc?

E. Alá izan dedillá.

G. Cér oracio esaten diozcatzu principalmente Virgiña Soberanari?

E. Ave Maria, edo Salvea.

G. Esan ezazu: Nórc esan zuan Ave - Maria?

E. Ainguеru San Gabrielec, Maria Virgiña visitatcera etorri zanean.

G. Nórc esan zuan Salvea?

E. Ama Eleiza Santac, ceñac daducan recibituric.

G. Certacó?

E. Favoreac escatceco Ainguеruen Erreguiña Maria Santísimari.

G. Ave Maria, edo Salvea esaten dezunean, norequin itz eguiten dezu?

E. Gure Señora Maria Virgiñarequin.

G. Nor dá gure Señora Maria Virgiña?

E. Dá Señora virtutez, eta

graciaz bete bat, ceña dan Jaungoycoaren Ama, eta dagoana Ceruan.

G. Eta Aldarean dagoana nor dá?

E. Da Ceruan dagoana-ren imagina, eta semejanza bat.

G. Certacó dago an?

E. Aldarean dagoana ecusi, ta acorda gaitecen Ceruan dagoanaz, eta cergatic dan aren Imagina, reverenciatu dezagun.

M. Au berau eguin bear-dezu beste Santuen Imaginaquin.

G. Eguin bear diegu Oracio Santuai ere?

E. Bai Jauna, gure medianero edo favorecitzalleai becela.

G. Cer gauza dirade Aingueruac?

E. Dirade Espiritu Bienaventuradu batzuec, daudenac Ceruan, Jangoyçoa gozatcen.

G. Certaco criatu cituan Jaungoyco gure Jaunac?

E. Eternidade gucian abala-

tu, eta bedeincatu dezaen,

G. Certacó gueyago?

E. Aren Ministroac becela goberna decén Eliza, eta guarda ditzaen guizonac.

G. Beraz badezu zuc Aingueru guardacoa?

E. Bai Jauna badet, eta guizon bacoitzac du bere Ainguerua.

*M.* Izan eguiozu bada devocio, eta erregutu eguiozu egun-ero.

## *DOCTRINA CHRISTIANAren irugarren partea, ceñean declaratcen dan cer obratu bear dan.*

ECusi det nola daquizun cer sinistu bear dezun, eta cer Oracio eguin bear dezun, ecusi dezagun oraiñ nola daquizun cer obratu bear dezun, Christavac becela esan ezazu: Ceiñ dá Jangoicoaren Legueco lenengo Mandamentua?

E. Jangoicoa amatcea gauza guztien gañean.

G. Norc amatcen dú Jaungoicoa?
E. Aren Mandamentuac gordetcen dituanac.
G. Cer dá Jaungoicoa gauza guztien gañean amatcea?
E. Nayago izatea galdu vicitza Jaungoycoa ofenditu baño.
G. Certara gueyago obligatcen dù Mandamentu onec?
E. Jangoicoa bacarric adoratcera, corputceco, eta animaco reverencia guztiarequin, sinisten, eta esperatcen duala bera-gan fede osoarequin.
G. Nórc eguiten du pecatu mandamentu onen contra?
E. Idoloac, edo Jaungoyco falsoac adoratcen dituenac, eta aetan sinisten duanac.
G. Eta nór gueyago.
E. Sorguinquerietan, edo gauza supersticiotan sinisten dutenac.
G. Ceiñ dá bigarrena.
E. Juramentu falsoric, edo alferric ez eguitea.

G. Norc eguiten dú juramentua alferric?

E. Juramentua eguiten duanac eguia bague, justicia bague, eta premia bague.

G. Pecatu dá juramentu alferra eguitea criaturacgatic?

E. Bay Jauna; cergatic oetan eguiten zayo juramentu Criadoreari.

G. Cer remedio dá ez eguiteço juramentu alferric?

E. Acostumbratcea esatera bay, edo ez, Christoc eracusten digun becela.

G. Ceiñ dá Irugarrena?

E. Jay egunac santificatcea.

G. Nórc santificatcen ditu jay egunac?

E. Meza osoa enzuten duanac, ta premia bague aetan bearric eguiten ez tuanac.

G. Ceiñ dá Laugarrena?

E. Aita, eta Ama onratcea.

G. Nórc onratcen ditu gurasoac?

E. Obedecitcen dienac, socorritcen dituanac, eta re-

verentçiatçen duenac.

G. Nor aditçen dirade besteric gurasotzat?

E. Andiagoaç edadean, dignidadean, eta gobiernoan.

G. Ceiñ dá Bostgarrena?

E. Iñor ez iltçea.

G. Cer aguintçen dá mandamentu onetan?

E. Ez eguitea iñori gaitcic ez obraz, ez itcez, eta ez deseoz.

G. Ceiñ dá Seigarrena?

E. Luxuriaco pecaturic ez eguitea.

G. Cer aguintçen dá Mandamentu onetan?

E. Izan gaitecela garbiac, eta çastoac pensamentuetan, itçetan, eta obretan.

G. Ceiñ dá Zazpigarrena?

E. Ez ostutçea.

G. Cer aguintçen dá Mandamentu onetan?

E. Ez quentçea, ez eduquitcea, eta ez nai izatea besteren gauzaric Jabearen vorondatearen contra.

G. Ceiñ dá Zortcigarrena?

E. Testimonio falsoric ez jasorcea, eta guezurric ez esatea.

G. Cer aguintcen dá mandamentu onetan?

E. Ez eguitea progimoaren contra juicio gaiztoric, ez esatea, eta ez aditcea aren faltac.

G. Norc ausicen du mandamentu aú.

E. Razoyaren contra juzgatcen duanac, fama quentcen duanac, secretoa descubritcen duanac, edo guezurra esaten duanac.

G. Cer eragozten dá bederatcigarren, eta amargarren mandamentuetan?

E. Deshonestidadearen, eta haciendaren deseoac.

*M.* Esan itzatzu Ama Eliza Santaren Mandamentuac.

*AMA ELIZA SANTAREN Mandamentuac dira- de bost.*

LEnengoa, Igandeetan, eta beste Jayetan Meza

osoa enzutea.

Bigarrena, urtean bein guchienaz confesatcea, edo leenago illtceco peligroric esperatcen badu.

Irugarrena, Pazcoa Resurreciocoetan Comulgatcea.

Laugarrena, Ama Eliza Santac aguintcen duanean barautcea.

Bostgarrena, Amarrenac, eta Primiciac pagatcea.

G. Certacó dirade Mandamentu oec?

E. Obeto gordetceco Mandamentu Divinoac.

*M.* Esan itzazu Obra Misericordiazcoac.

### *OBRA MISERICORDIAZcoac dirade amalau, zazpi Espiritualac, eta zazpi Corporalac.*

*Zazpi Espiritualac dirade oec.*

LEnengoa, eztaquienari eracustea. Bigarrena, premia duanari conseju óna ematea. Irugarrena, gaizqui egui-

ten duana corregitcea. Laugarrena, injuriac barcatcea. Bostgarrena, triste dagoana consolatcea. Seigarrena, gure progimoen miseriac, eta flaquezac pacienciarequin sufritcea. Zazpigarrena, viciacgatic, eta illacgatic Jaungoicoari erregutcea.

*Zazpi Corporalac dirade oec.*

LEnengoa, enfermoac visitatcea. Bigarrena, goseac dagoanari jaten ematea. Irugarrena, egarriac dagoanari edaten ematea. Laugarrena, cautivoa errescatatcea. Bostgarrena, narru gorrian dagoana jancitcea. Seigarrena, peregrinoari ostatua ematea. Zazpigarrena, illac enterratcea.

G. Cergatic deitcen zate Obra misericordiazcoac?

E. Cergatic eztiraden zor Justiciaz.

G. Noiz obligatcen due pecatu mortalaren azpian?

E. Guizon discretoen juicio-

cioan, graveac diraden necesidadeetan.

## *DOCTRINA CHRISTIANAren laugarren partea, ceñean declaratcen diraden Sacramentu recibitu bear diranac.*

ECusi det nola daquizun cer sinistu; cer Oracio egnin; eta cer obratu bear dezun; ecusi dezadan orain nola daquizun cer recebitu bear dezun, ceña dan azquenecoa: esan itzazu Ama Eliza Santaren Sacramentuac.

## *AMA ELIZA SANTAREN Sacramentuac dirade zazpi.*

LEnengo bostac dirade necesarioac, edo recibitu bear diradenac obraz, edo deseóz, eta oec bague ecin salva diteque guizona, utcitcen baditu menosprecioz; beste biac dirade vorondatezcoac. Lenengoa, Bautismoa. Bigarrena, Confirmacioa. Iruga-

rrena, Penitencia. Laugarrena, Comunioa. Bostgarrena, Extremauncioa. Seigarrena, Sacerdotearen Ordena. Zazpigarrena, Matrimonioa.

G. Cer gauza dirade Sacramentuac?

E. Dirade señale batzuec instituitu, edo eguin cituanac Jesu Christo gure Jaunac emateco guri oequin bere gracia, eta virtuteac.

G. Cer gauza dá gracia?

E. Dá izate Divino bat equiten duana guizona Jaungoicoaren Seme, eta Ceruaren heredero.

G. Cer virtute ematen ditué Sacramentuac graciarequin batean?

E. Principalmente Iru Theologalac, eta Divinoac.

G. Ceiñ dirade?

E. Fedea, Esperanza, eta Caridadea.

G. Cer gauza dá Fedea?

E. Sinistutcea ecusi ez guenduena, cergatic Jangoicoac rebelatu duan.

G. Cer gauza dá Esperantza?

E. Esperatcea Gloria, eta ondasun Eternoac Jaungoicoaren graciaren, eta gure obra onen medioz.

G. Cer gauza da Caridadea?

E. Amatcea Jangoicoa gauza guztien gañean, eta gure progimoac, gueren buruac becela, izaten guerala aequin, aec gurequin izatea nay degun becela.

G. Certacó izandu zán instituitua Sacramentu Santu Bautismocoa?

E. Quentceco pecatu originala, eta beste batiatcen danagan aurquitcen dan, edoceiñ.

G. Cer gauza dá pecatu originala?

E. Pecatu ura, ceñarequin jayotcen gueraden, heredaturic gure lénengo gurasoetatic.

G. Certaco dá Sacramentu Santu Confirmaciocoa?

E. Confirmatceco, ta ipintceco fuerte Bautismoan reci-

bitu guenduan Fedéan.

G. Certaco dá Sacramentu Santu Penitenciacoa?

E. Batayatu ezquero eguindaco peçatuac barcatçeco.

G. Cér pecatu dirade oriec?

E. Pecatu mortalac principalmente, baita venialac-ere,

G. Cer zauza dá pecatu mortala?

E. Dá esatea, edo eguitea, pensatcea, edo deseatcea çerbait gure Jaungoico Soberanoaren Legue Santuaren contra gauza gravean.

G. Cérgatic deritza mortala?

E. Cergatic ilcen duan eguiten duanaren anima.

G. Cér parte ditu Penitenciac quentceco pecatu mortala?

E. Iru. G. Ceiñ dirade?

E. Biotceco contricioa, aozco Confesioa, eta Obraz-co satisfacioa.

G. Pecadoreac pecatu mortalean erorten dán guztian beardu Confesatu bereala pecatua barcatceco?

E. Ongui izango lizateque,

baña ezta necesarioa.

G. Cer eguin bear dú bada?

E. Bere pecatuen dolore eguiazcoa eduquicea, emendatceco, eta Confesatceco propposituarequin Ama Eleiza Santac aguintcen duanean.

G. Cer gauza dá pecatu veniala?

E. Dá pecatu mortalaren disposicio bat.

G. Cergatic deritzá veniala?

E. Cergatic erraz erorten dan guizona artan, eta erraz barcatcen dan.

G. Cembat gauzagatic barcatcen dá?

E. Bederatci-gatic.

G. Ceiñ dirade?

E. Lénengoa, Meza enzuteagatic. Bigarrena, Comulgatceagatic. Irugarrena, Confesio Generalagatic. Laugarrena, Obispoaren Bendicioagatic. Bostgarrena, ur Bedincatuagatic. Seigarrena, Ogui bedincatuagatic. Zazpigarrena, Aita gurea esateagatic. Zorcigarrena, Sermoya aditceagatic. Bederatcigarrena, pe-

chuco golpe-agatic, escatcen zayola barcacioa Jaungoico gure Jaunari.

G. Certaco dá Sacramentu Santu Comuniocoa?

E. Recibitcen degula beardan disposicioarequin, izan dedin gure animen mantenimentua, eta aumentadizagun gracia.

G. Cer recibitcen dezu Sacramentu Santu onetan?

E. Christo gure Jauna Jaungoico, eta Guizon eguiazcoa, ceña dagoan verdaderamente Sacramentu Santisimo onetan.

G. Certaco dá Sacramentu Santu Extremaunciocoa?

E. Irù gauzataraco.

G. Ceiñ dirade?

E. Lénengoa vicitzá gaizto pasatuaren arrastoac, eta reliquiac quentceco. Bigarrenà, animari indarrac emateco demonioaren tentacioen contra. Irugarrena, corputzari osasuna emateco, conveni bazayo,

G. Certaco dá Sacramentu Santu Ordenacoa?

E. Consagratceco, eta Ordenatceco Elizaco Ministro dignoac, nola diraden Sacerdoteac, Diaconoac, eta beste gañeracoac.

G. Certaco dá Sacramentu Santu Matrimoniocoa?

E. Ezcontceco, eta emateco ezconduai gracia, onequin vici ditecen paquean, eta criatu ditceen semeac Ceruraco.

*Pecatu Capitalac dirade zazpi.*

LEnengoa, Soberbia. Bigarrena, Avaricia. Irugarrena Luxuria. Laugarrena, Ira. Bostgarrena, Gula. Seigarrena, Embidia. Zazpigarrena, Naguirasuna.

G. Cergatic deitu diezu pecatu Capitalac, zazpi comunmente, edo gueyenean mortalac esaten zatenai?

E. Deitu diet Capitalac, cergatic diraden, beste vicio aetatic jayotcen diraden

buruac, Iturriac, eta sustrayac becela, eta mortalac deitcea ez dator aiñ ongui, bada ascotán ez diradé venialac baño gueyago.

G. Noiz dirá mortalac?

E. Jaungoicoaren, eta progimoaren caridadearen contra diradenean.

G. Noiz diradé caridadearen contra?

E. Aequin ausitcen daneañ Jaungoicoaren, edo Elizaren Mandamenturen - bat gauza gravean.

G. Cer dá Sobervia?

E. Besteac baño gueyago izateco apetitu desordenatu bat.

G. Cer dá Avaricia?

E. Haciendaren apetitu, edo deseo desordenatu bat.

G. Cer dá Luxuria?

E. Araguiaren gusto ciquiñen apetitu desordenatu bat.

G. Cer dá Ira?

E. Venganzaren deseo desordenatu bat. G. Cer dá Gula?

E. Jateco, ta edateco deseó gueyegui bat.

G. Cer dá Embidia?
E. Besteren onaren damutasuna.
E. Cer dá Naguitasuna?
E. Obra onac eguiteco animoaren falta.

*Zazpi vicio oen contra dirade zazpi virtute.*

Soberviaren contra, humildadea. Avariciaren contra, liberalidadea. Luxuriaren contra, castidadea. Iraren contra, paciencia. Gularen contra, templanza. Embidiaren contra, caridadea. Naguitasunaren contra, diligencia.

*Animaren Etsayac ceiñzuetatic igues eguin bear degun dirade iru.*

LEnengoa, Mundua. Bigarrena, Demonioa. Irugarrena, Araguia.
G. Nola igues eguiten dá Mundua-gandic?
E. Despreciatcen dirala aren pompac, eta vanidadeac.
G. Nola igues eguiten dá Demonioa-gandic?

E. Oracioarequin, eta humildadearequin.

G. Nola igues eguiten dá Araguia - gandic?

E. Mortificacioaquin, vigiliaquin, eta baravaquin. Eta au dá etsairic andiena: cergatic araguia ecin apartatuco degu gure-gandic: baña bai Mundua, eta Demonioa.

*Virtute Teologalac dirade iru.*

LEenengoa, Fedea. Bigarrena, Esperanza. Irugarrena, Caridadea.

*Virtute Cardinalac dirade lau.*

LEenengoa, Prudencia, Bigarrena, Justicia. Irugarrena, Fortaleza. Laugarrena, Templanza.

*Corputzaren Sentiduac dirade bost.*

LEenengoa, ecustea beguiaquin. Bigarrena, aditcea belarriaquin. Irugarrena gustatcea aoarequin. Lau-

garrena, usai eguitea sudurraquin. Bostgarrena, uquitcea escuaquin.

G. Certacó emancigun Jaungoycoac sentiduac, eta beste miembroac?

E. Guztiaquin servitceco aren Divina Magestadea.

*Animaren Potençiac dirade iru.*

MEmoria, Entendimentua, eta Vorondatea.

G. Certacó emancigun Jaungoicoac Memoria?

E. Acordatceco arzaz, eta aren mesede aundiaz.

G. Certaco eman-cigun Entendimentua?

E. Ezagutceco Jaungoicoa, eta argan pensatceco.

G. Certaco eman-cigun Jaungoicoac Vorondatea?

E. Ama dezagun ontasun guztia duena becela, eta progimoa argatic.

*Espiritu Santuaren Doayac dirade zazpi.*

LEnengoa, Jaquinduriaco Doaya. Bigarrena, Entendi-

mentuco Doaya. Irugarrena, Consejuco Doaya. Laugarrena, Fortalezaco Doaya. Bostgarrena, Cienciaco Doaya. Seigarrena, Piedadeco Doaya. Zazpigarrena, Jaungoicoaren bildurtasuneco Doaya.

*Espiritu Santuaren fructuac dirade amabi.*

LEnengoa, Caridadea. Bigarrena, Paquea. Irugarrena, Animaren anditasuna. Laugarrena, Benignidadea. Bostgarrena, Fedea. Seigarrena, Continencia. Zazpigarrena, Gozo espirituala. Zortcigarrena, Paciencia. Bederatcigarrena, Ontasuna. Amargarrena, Mansedumbrea. Amaica-garrena, Modestia. Amabi-garrena, Castidadea.

*Bienaventuranzac dira zortci.*

1 BIenaventuraduac pobreza escogitcen duenac cergatic aena dán Cerueta-co Reynua.

2 Bienaventuraduac mansoac;

cergatic aec izango dirade lurraren javeac.

3 Bienaventuraduac negarreguiten duenac; cergatic aec izango dirade consolatuac.

4 Bienaventuraduac Justiciaren gosea, eta egarria duenac; cergatic aec izango dirade contentatuac.

5 Bienaventuraduac misericordiosoac; cergatic aec alcanzatuco due misericordia.

6 Bienaventuraduac viotz garbia duenac; cergatic aec ecusico due Jangoicoa.

7 Bienaventuraduac paqueosoac; cergatic aec izango dirade deituac Jaungoicoaren semeac.

8 Bienaventuraduac Justiciagatic persecucioa padecitcen duenac; cergatic aena dá Ceruetaco Reinua.

G. Cer esan dezu oraiñ?

E. Zortci Bienaventuranzac.

G. Cer gauza dirade Bienaventuranzac?

E. Virtuteen, eta Espiritu-Santuaren Doayen Obra-

tic onenac.

G. Nor dirade pobreza escoguitcen duenac.

E. Nay ez duenac honraric eta aberastasunic, chiquiac izana-gatic ere.

G. Nor dirade mansoac?

E. Gorrotoric ez duenac ezta aren movimenturic-ere.

G. Nola dirá lurraren javeac?

E. Bere buruen jaunac becela.

G. Nor dirade negar eguiten duenac?

E. Gustoac utcitcen dituenac chiquiac izanagatic-ere.

G. Nor dirá justiciaren gosea, eta egarria duenac?

E. Cuidaduarequin obligacio duen guztia eguiten duenac.

G. Ceiñ dirade Misericordiosoac?

E. Piedade guztia duenac arrotzaquin-ere.

G. Nor dirade viotz garbia dutenac?

E. Beren pasio gucietan mortificatcen diradenac.

G. Nór dirade Paqueosoac?

E. Paquea obratcen duenac be-

retan, eta beste-etan.

G. Nór dirade Justicia-gatic padecitcen duenac?

E. Justician firme daudenac, perseguituac izanagatic ere.

G. Cergatic deitcen zaye oei Bienaventurantzac?

E. Cergatic oetan dagoan vicitza onetaco Bienaventuranza, eta bestecoaren esperantza.

*M.* Jaungoicoac eraman gaitzala gucioc ara. E. Amen.

*Confesio Generala.*

NI pecataria confesatcen naitzayo Jaungoico guciz Poderosoari, Santa Maria beti Virgiñari, San Miguel Aingueruari, San Juan Bautistari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, Santu guztiai, eta Zuri Aita Espirituala; cerren eguin dedan pecatu pensamentuz, itcez, eta obraz, nere culpaz, nere culpaz, guztiz nere culpa andiaz. Argatic erregutcen diot Santa-

Maria beti Virginari, San Miguel Ainguerüari, San Juan Bautistari, San Pedro, ta San Pablo Apostoluai, Santu guztiai, eta zuri Aita Espirituala erregutu-guiozu nigatic Jangoico gure Jaunari. Amen.

*CONCIENCIA EGUNERO esaminatceco moduac ditu bi tempora, eta bost puntu.*

*Lenengo tempora.*

GOicean esnatcen danean jasoco-du viotza Jaungoicoagana, eta ofrecituco diozca egun artaco pensamentuac, ítzac, eta obrac; proponituco-du, edo artuco-du propositua ez ofendiceco aren Divina Magestadea, ta escatuco dio aú cumplitceco gracia.

*Bigarren tempora.*

ARratsean oera etcin baño lenago, jarrico-dá velaunico, esango-du Confesio Generala, eta eguingo-dú emen esaten dana.

*Lénengo Puntua.*

EMango diozca graciac Jaungoicoari mesede recibitu dituanacgatic, nola diraden, cergatic criatu-zuan, redimitu-zuan, Christau-eguin-zuan, eta conservatcen-duan, particularmente berari eguin diozcan mesede principalacgatic, ceñac-gatic zor dion ezaguera particularra.

*Bigarren Puntua.*

EScatuco dío arén Divina Magestadeari arguia, ta gracia ezagutceco egun artaco faltac,

*Irugarren Puntua.*

JUango dá pensatcen esnátu zanetic ordu artaraño, ceñean aurquicen dan, pensatcen duala ordutic ordura, pensamentuz, itcez, eta obraz, cer eguin, esan, eta pensatu duan.

*Laugarren Puntua.*

ATeraco ditu garbiro obra

on eguin dituenac, eta emango diozca graciac Jaungoycoari aec-gatic.

### Bostgarren Puntua.

Artuco du damutasuna biotcetic eguin dituen falta guztiena, eta escatuco dio Jaungoicoari aén barcacioa, proponitcen duala emendatcea, eta eguingo dú acto contriciozcoa seguitcen dan moduan.

### Acto Contriciocoa.

NEre Jesu-Cristo Jauna; Jaungoico eta Guizon eguiazcoa, nere Criadorea, eta Redentorea. Zu ceradena izanagatic, eta cergatic amatcen zaitudan beste gauza guztiac baño gueiago, damudet Jauna nere biotz guztitic Zure Magestadea ofenditua artcen det proposito firmea ez gueyago pecaturic eguiteco, eta apartatceco Zute Ofensaco ocasio guztietatic, eta confesatceco, eta cumplitceco pe-

niteneia: ofrecitcen dizut, Jauna nere vicitza, obrac, eta trabajuac nere pecatuen satisfacioraco, ta nola suplicatcen dizudan, ala daducat confianza Zure ontasun, ta misericordia infinitoagan barcatuco dirazula Zure Odol precioso, Pasio, eta Eriotzaren merecimentuac-gatic, eta emango didazula gracia emendatceco, eta perseverarceco nere vici guztian. Amen.

## *ENCARNACIOCO MISTErioaren esplicacioa.*

G. Certan consistitcen dá Encarnacioco Misterioa?

E. Trinidade Santisimoco bigarren Persona, ceña dán Semea, Guizon eguitean Maria Santisimaren Entraña garbietan, guizonaren obra-gabe, baicican Espiritu-Santuaren Obraz, guelditcen zala Señora aú Virgiña Semea eguin-baño-lén, eguitean, ta eguin ezquero.

G. Cer Obra eguin zuan Espiritu Santuac?

E. Formatu zuan Maria Santisimaren Entrañetaco Odol garbiarequin Jesu Christo gure Jauna-ren Corputza, criatu-zuan Anima, unitu zuan Anima Corputzarequin, Anima, ta Corputza unitu-cituan Semearen Personarequin, ta aú izan du zan eguitea Jaincoa guizon.

G. Obra maravilloso aú Espiritu Santuac becela, etzuen eguin Aitac, eta Semeac-ere?

E. Bay Jauna, irurac eguin zuten.

G. Cer gatic esaten dá bada izandu-zala Espiritu Santua-ren Obra?

E. Cergatic izan zan amoriozco obra, eta amorioa atribuitcen zayo Espiritu Santuari. Aitari Poderea, eta Semeari Sabiduria becela; baña Iru Personac, Jaungoico guztiz Poderoso batec becela, eguin baceben

ere obra Soberano au, Semeac bacarric artu ceban guizonaren naturaleza; onegatic ditu Semeac bi naturaleza, bata Divinoa Jaungoicoa dán partetic, ta bestea Humanoa Guizona dan partetic; eta Aitac, eta Espiritu Santuac ez-due Jaungoicoaren naturaleza baicic.

G. Cembat Entendimentu ditú Cristoc?

E. Bi, bata Divinoa, Jauncoicoa-dan partetic, eta bestea Humanoa Guizona dán partetic.

G. Cembat vorondate ditú Cristoc?

E. Bi, bata Divinoa Jaungoicoa dan partetic, eta bestea Humanoa Gui zona-dan partetic.

G. Cembat Persona aurquitcen dirade Cristo-gan?

E. Bat bacarra, eta aú da Persona Divinoa; bada Persona humanoric ezta aurquicen Cristo-gan.

G. Cembat Memoria ditu

Cristoc?

E. Bat, eta aú Guizona dan partetiç, cergatic Jaungoycoa dán partetic gauza guztiac dauzca presente, ta ezdu memoria-ren bearric.

G. Cristoc badú Aitaric, edo Amaric?

E. Jaungoicoa-dan partetic badu Aita, ceña-dan Aita Eternoa, Trinidade Santisimoco leenengo Persona, eta eztu Amaric; eta Guizona-dan partetic dú Ama, ceña-dan Maria Santisima, eta eztu Aitaric.

G. Christo, Jaungoicoa dan partetic, edo Guizona-dan partetic izanduzan lénago?

E. Jaungoicoa-dan partetic izandu zan ascoz leenago, guizona-dan partetic baño; cergatic Cristoc, Jaungoicoa dan partetic eztu principioric, eta temporaric Jaungoicoa dan partetic izandu eztanic; baña guizona-dan partetic izanduda tempora Cristo izandu eztana.

G. Non dago Cristo?

E. Jaungoycoa dan partetic dago lecu guztian ; baña guizonadan-partetic eztago Ceruan, eta Aldareco Sacramentu Santuan baicic.

## *SACRAMENTU SANTU Aldarecoa-ren esplicacioa.*

G. Cer dagò Aldareco Sacramentu Santuan ?

E. Dago Jesu-Christo gure Jauna Jaungoicoa eta Guizon eguiazcoa Ceruan dagoan becela.

G. Cer dago Hostian consagratu baña leenago ?

E. Ogui pisca bat.

G. Eta cér dago consagratu ezquero ?

E. Dago Jesu-Cristo gure Jauna-ren Corputza. Eta nola corputza dagoan viciric, eta unituric Jaungoycoaren Semea-ren Personarequin, badago Odola ere, bai-ta anima, Jaungoico-tasuna, ta iru Persona Divinoac-ere.

G. Cer dagó Calizan consagratu baño lénago?

E. Ardo purua, ur tanto batequin.

G. Eta cer dago Consagratu ezquero?

E. Dago Jesu-Christo gure Jaunaren Odola: eta nola dagoan Corputza-requin uniturie, badago Corputza-ere, bai ta Anima, Jangoicotasuna, eta iru Persona Divinoac-ere, alaco moduan nun Jesu-Cristo guztia dago Hostian, ta Jesu-Cristo guztia dogo Calizan.

G. Ecusten dá Jesu-Christo gure Jauna Sacramentu Santu onetan?

E. Ez ta ecusten oguiaren, ta ardoaren colorea, eta beste accidenteac baicic; baña an eztago oguiric, eta ardoric Sacerdoteac Consagratu ezquero.

G. Hostia Consagratuaren erdia, edo parte bat recibitcen duenac, recibitcen-dú Jesu-Christo guztia?

E. Guztia recibitcen-dú enteroa, edo osoa; bada aren Divina Magestadea aimbeste dago Hostiaren parteric chiquienean, nola Hostia guztian; cergatic partitcen badu-ere Sacerdoteac Hostia consagratua pusca ascotan, ezta particen JesuCristo Gure Jauna; baicican guélditcen-da osoa parte bacoicean, aiñ aundia, edo osoa, parte chiquian, nola aundian.

G. Cembat gauza bear dirade ondo Comulgatceco?

E. Iru Jauna.

G. Ceiñ dirade?

E. Leenengoa, cer recibitu bear duan jaquitea. Bigarrena, barau naturalean egotea. Irugarrena, Jaungoycoaren gracian egotea.

*Oracioa Comulgatcera dijoanean esateco.*

Nere Jauna, eta Jesus dultcea, nic deseatcen

det zure Diviña Magestadea recibitcea espiritu garbi, eta caridade-arequin, ceñarequin recibitu cinduan zure Ama Virgiña Santisimac, eta Ceruco Santu guztiac.

*Oracioa Comulgatu ezquero esateco.*

O Ceruetatuco, eta lurreco Jaun Soberanoa! Cer merecimentu izandu det nic etorceco nigana aiñ Jaun andia? Bedeincatua izandedilla zure Ontasun, eta misericordia; cergatic eguiten diozun aimbeste mesede zure criatura oni: Aingueruac, eta criatura guztiac bedeinca zaitzatela, Jauna, piedade aundi onegatic.

*Esplicatcen dirade Confesio onarne condicioac.*

G. CEmbat dirade Confesio onaren condicioac? E. Bost,

G. Cein dirade?

E. Lenengoa, Examina. Bigarrena, Dolorea. Irugarrena, Propositua. Laugarrena, Confesioa. Bosgarrena, Satisfacioa.

G. Cer gauza dá examina?

E. Pecatu eguin dituanac memoriara ecartcea, confesatceco guztiac.

G. Cembat tempora bear dá pecatuac memoriara ecarteco?

E. Ez ta dembora señalaturic baicican bere capacidadearequin, eta tempora confesatu gabe egon danarequin conforme, bear du artu tempora necesitatcen duana; Eta ipini negocio importancia andico batean ipinten dan cuidadua; cergatic au da eguitecoric importanténa.

G. Nondic ecarrico ditú pecatuac memoriara?

E. Jaungoycoaren Leguece Mandamentuetatic, eta Eliza Ama Santaren-etatic,

consideratcen duala, cér mandamentu-rén contra eguin duan pecatu, ta cembat bider, bere personaren estadu, oficio, edo empleoarequin conforme, ateratceco onela garbiro contua pecatu pensamentuz, itcez, eta obraz eguin dituanenaz.

G. Cér Gauza dá Dolorea?

E. Jaungoicoa ofendituraco damutasuna.

G. Cembat modutan dá Dolorea?

E. Bitan, batari deritza Contricioa, eta besteari Atricioa.

G. Cér gauza dá Contricioa?

E. Da Jaungoicoa ofendituraco damutasuna, izanagatic aren Divina Magestadea dan becin ona, santua, eta amablea.

G. Cér gauza dá Atricioa?

E. Jaungoicoa ofendituraco damutasuna pecatuaren itsustasunagatic, edo cergatic pecatua dala mediante,

aparta gaitzaquean Ceruco Gloriatic, eta castigatu Infernuco penaquin.

G. Cein dá dolore oetan bietan onena?

E. Contricioa dá ascoz obea Atricioa baño; cergatic acto Contriciozco eguiazçoa eguiten duánari, confesatceco propposituarequin barcatcen zaizca pecatuac confesatu baño leenago, eta acto aù eguiten duan instante artan, gueldircen dá Jaungoicoaren gracian; baña Atriciozco acto eguiten duanari etzaizca barcatcen pecatuac Confesioco Sacramentuarequin batean baicic: Eta onegatic balijoaz Confesatzera persona bi, bata Contricioaren dolorearequin, eta bestea Atricioarequin, eta biac illçobalira confesatu baño lénago, Contricioarequin dijoana salvatuco litzaque, eta condenatuco litzateque Atricioarequin dijoana.

G. Peccatu mortalean dagoana, aurquituco balitz illiceco peligroan, ta confesoregabe nola libratuco litzateque pecatutic?

E. ACTO Contriciozco bat eguin da.

G. Cer gauza dá propositua?

E. Da determinacio firme bat ez bere vicitzaco dembora guztian beñere pecaturic eguiteco, eta apartatceco pecatu eguiteco ocasio gucietatic.

G. Apartatcen eztanac pecatu eguiteco ocasiotic, apartatu al ditequeala, daduca propositu eguiazcca?

E. Ez Jauna, baicican falsoa.

G. Cér aditcen dezu confesioa-gatic?

E. Confesatcea pecatu mortal guciac utci-gabe batere, lotsaz confesatu bague.

G. Bada pecatu venialac confesatceco obligacioric?

E. Obeago dá Confesatcea, baño ez dá obligacioric.

G. Pecatu mortal bat confe-

satcea aztutcen bazayo, eguingo dû Confesio ona?

E. Eguingo dú Confesio ona ezpazayo aztutcen examiñaren faltaz, baña izango dù obligacioa, Confesatceco urreneco confesioan pecatu aztutcen zayona.

G. Pecatu mortal bat lotsaz Confesatu gabe utcitzen deuana, salva diteque beste penitenciaquin?

E. Ecin salva diteque eguingo balituere Santu guztiac eguin cituen baño penitencia gueyago.

G. Arquitcen bada pecataria peccatu chit grave, eta itsusi batequin, edo ascorequin, billatuco dú erremedioa Erromara juan-gabe?

E. Edoceiñ Confesorec billatuco diò erremedioa Erromara juan-gabe.

G. Acusa dezaque confesoreac penitentea Inquisiciora?

E. Ecin acusa dezaque viciric dagoala erreco balute-ere.

G. Beraz ez ta escusaric bate-

re, pecatuac confesatu gabe utcitceco?

E. Ez jauna, eta Confesatcen ezdituana bere culpaz condenatuco da erremedio-gabe.

G. Cer gauza dá satisfacioa?

E. Pagatcea penitenciaco obraquin pena, pecatuacgatic zor dana.

G. Certan consistitcen dá satisfacio aú?

E. Confesoreac ematen duan penitencia aceptatcean, eta cumplitcean.

G. Penitencia aceptatcen duanac, cumpliteeco intencioarequin, eguiten-dù confesio ona, ezbadu cumplitcen?

E. Bay jauna, baño cumplitu gabe utcitcen duan penitencia gravea bada, eguiten dú pecatu mortala, eta gueldircen dá obligacioarequin, pecatu aù confesatceco, urreneco confesioan.

## *ORACIOA CONFESATCERA dijoanean esateco.*

JAUN altu, ta Soberanoa, eta Jaungoico Eternoa, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua. Nic sinisten det firmemente, emango diezula premioa onay, eta castigua gaiztoai. Daducat nere pecatu guztien damutasuna Zu ceradena izanagatic, eta cergatic amatcen zaitudan beste gauza guztiac baño gueyago, proponitcen det firmeza guztiarequin emendatcea zure gracia divinoarequin, eta nay det cumplitu penitencia confesoreac ematen didana. Eta daducat esperantza Zure ontasun, eta misericordia infinitoa-gan barcatuco dirazula, eta salvatuco nazula, nere Jesu-Christo Jauna-ren merecimentu aundiac-gatic Amen Jesus.

## ORACIOA CONFESATU-
### ezquero esateco.

Ematen diozcat gracia asco gure Jesu-Cristo Jaunari, cérgatic utci ciran onen erremedio erraza, eta suavea nere pecatuen barcacioa alcanzatceco, eta proponitcen det ez gueyago aren Divina Magestadea ofenditcea, Amen.

### *Acto Fedeco, Esperanzaco, ta Caridadecoac, ceñac eguin bear diraden urtean beiñ guchiena.*

## ACTO FEDECOA.

SInisten det dala Jaungoico eguiazco bat, eta iru Persona diferenteac, ceñac diraden Aita, eta Semea, eta Espiritu-santua. Sinisten det Trinidade Santisimoco bigarren Persona eguin zala Guizon Maria Santisimaren Entraña garbietan, Espiritu Santuaren obraz, ta virtutez, gueldítcen

zala Señora Soberana aù Virgiña, Semea eguin baño lén, eguitean, eta eguiñ ezquero. Sinisten det Jaun onec padecitu zuala, eta ill zala gu salvatcea gatic, piztu zala ill en artetic iru-garren egunean, igo zala Ceruetara, eta etorrico dala viciac, eta illac juzgatcera: aú dá onac premiatcera, eta gaiztoac castigatcera. Sinisten det Aldareco Sacramentu Santuan dagoala Jesu-Cristo gure Jauna, Jaungoico, eta Guizon eguiazcoa Ceruan dagoan becela. Sinisten det Ama Eliza Santa Catolica Erromacoac sinisten duan guztia, eta Fede onetan nai det vici, eta ill.

## *ACTO ESPERANZACOA.*

DAducat esperanza Jaungoicoa-gan, barcatuco dirala nere pecatu guztiac, eta emango dirala bere gracia eta Gloria bere Misericordia infinitoa-gatic, Jesu-

Cristo nere Jauna-ren merecimentuac-gatic, eta aren Ama Santisima-ren erreguac-gatic eguiten badet nere partetic obligacio dedana, eta eguin dezaquedana, ceña dán penitencia eguiazcoa.

## ACTO CARIDADECOA.

AMatcen det Jaungoicoa beste gauza guztiac baño gueyago, eta nayago ditut galdu guztiac aren Divina Magestadea baño. Eta nai nuque amatu, munduco Justu guztiac, eta Ceruco Bienaventuraduac, eta serafin guciac amatcen duen becela. Eta posible baliz, nai nuque amatu, beraren Ama, ta nere Señora Maria Santisimac amatcén duan becela. Ez amatua, ofenditua, izatea aimbeste ofenditcen dutenac, eta guztiac ez amatcea aren Divina Magestadea, bera dana izanagatic, damu det nere viotz gucitic, eta proponitcen det

emendatceco, aren gracia me-
diante dala. Amen.

## *MARIA SANTISIMAREN Letania.*

Kyrie eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Christe audinos.
Christe axaudi nos.
Pater de Cœlis Deus.
Miserere nobis.
Filij Redentor mundi Deus.
Miserere nobis.
Spiritu Sancti Deus.
Miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus.
Miserere nobis.
Sancta Maria. Ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix. Ora.
Sancta Virgo Virginum. Ora.
Mater Christi. Ora.
Mater Divinæ Gratiæ. Ora.
Mater Purisima. Ora.
Mater Castissima. Ora.
Mater Inviolata. Ora.
Mater Intemerata. Ora.
Mater Immaculata. Ora.

| | |
|---|---|
| Mater Amabilis. | Ora. |
| Mater Admirabilis. | Ora. |
| Mater Creatoris. | Ora. |
| Mater salvatoris. | Ora. |
| Virgo Prudentísima. | Ora. |
| Virgo Veneranda. | Ora. |
| Virgo Predicanda. | Ora. |
| Virgo Potens. | Ora. |
| Virgo Clemens. | Ora. |
| Virgo Fidelis. | Ora. |
| Speculum Justitiæ. | Ora. |
| Sedes Sapientiæ. | Ora. |
| Causa nostræ lætitiæ. | Ora. |
| Vas Spirituale. | Ora. |
| Vas Honorabile. | Ora. |
| Vas Insigne Devotionis. | Ora. |
| Rosa Mistica. | Ora. |
| Turris Dabidica, | Ora. |
| Turris Eburnea. | Ora. |
| Domus Aurea. | Ora. |
| Fæderis Arca. | Ora. |
| Janua Cœli. | Ora, |
| Stella Matutina. | Ora. |
| Salus Infirmorum. | Ora. |
| Refugium Peccatorum. | Ora. |
| Consolatrix Aflictorum. | Ora. |
| Auxilium Cristianorum. | Ora. |
| Regina Angelorum. | Ora. |
| Regina Patriarcarum. | Ora, |

Regina Profetarum. Ora.
Regina Apostolorum. Ora.
Regina Martirum. Ora.
Regina Confesorum. Ora.
Regina Virginum. Ora.
Regina Santorum omniû. Ora.
Agnus Dei qui tollis peccata mundi. *Parce nobis Dómine.*
Agnus Dei qui tollis peccata mundi. *Exâudinos Domine.*
Agnus Dei qui tollis peccata mundi. *Miserere nobis.*
℣. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix. ℟. *Ut digni efficiamur promisionibus Christi.*

## *OREMUS.*

GRatiam tuam quæsumus Dómine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filij tui incarnationem cognovimus, per Pasionem ejus, & Crucem ad Resurrectionis Gloriam perducamur, Per eundem Christum Dom. nostrum. Amen.

FIN.